

## DEBABARRENA EKINEAN MARKARENTZAT LOGOTIPO LEHIAKETA

Debegesako (Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarteko) Berrikuntza eta Enpresa Sailak, 2008ko Ekintzailearen Egunaren ospakizunaren baitan, Debegesako ekintzaileak laguntzeko zerbitzuaren irudia diseinatzeko lehiaketa abian jarri du. Irudi hau **Debabarrena Ekinean** markan oinarrituko da.

Lehiaketak ondorengo oinarriak ditu:

1. **Helburua:** Debabarrena Ekinean lelopean, Debegesako Ekintzaileak Laguntzeko Zerbitzuaren irudia izango den logotipoaren diseinua. Irudi hau zerbitzuaren zabalpenean erabiliko da, ekintzailetasunarekin lotutako kanpainetan, Ekintzailearen Egunean...
2. **Parte-hartzaileak:** lehiaketa parte hartu nahi duen pertsona nahiz diseinu grafikoko enpresa orori zuzenduta dago. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi diseinu aurkeztu ahal izango ditu, bakarka edo enpresa gisa.
3. **Proposamena:**
  - a. diseinuak originala eta berria izan beharko du.
  - b. proposamenak Debabarreneko izpiritu ekintzaile eta berritzailea islatu beharko du.
  - c. proposamenak Debegesako logo eta irudi orokorrarekin koherentzia mantendu beharko du, eta debegesako webgunean sartzea gomendatzen da ([www.debegesa.com](http://www.debegesa.com)).
  - d. proposamenak ondorengo leloa jaso beharko du: Debabarrena Ekinean.
4. **Entregatu beharreko materiala:** diseinuak modu honetan entregatu beharko dira:
  - a. paperean: logotipoa koloretan eta txuri beltzean.
  - b. CD formatuan: logotipoa koloretan eta txuri beltzean, biak diseinu grafikoan ohizkoak diren programetan eginak.
  - c. logotipoarekin batera, nahi izanez gero, azalpen labur bat aurkeztu ahal izango da.
5. **Lanen aurkezpena:** lan aurkezteko epea zabalik egongo da 2008ko apirilaren 30a arte. Lanak DIN A-4ko kartazal batean entregatuko dira, Debabarrena Ekinean etiketa jarrita. Barnean, sobre itxi batean (txikiagoa) parte-hartzailearen datu pertsonalak jarri beharko dira (izen-abizenak, helbidea eta telefonoa). Lanak honako helbidera bidaliko dira:

DEBEGESA, Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkartea  
Berrikuntza eta Enpresa Saila  
Berrikuntza eta Enpresa Saila  
Eibar 20600 (Gipuzkoa)

6. **Epaimahaia eta emaitza:** epaimahaia Debegesako Berrikuntza eta Enpresa Saileko eta Hirigintza eta Birgaitze Saileko kideek osatuko dute. Epaimahaiko kideek ezingo dute lanik aurkeztu. Epaimahaiaren erabakia Debegesako webgunean nahiz prentsan zabalduko da.
7. **Saria:** 300 euro. Gainera, epaimahaikoek agiri idatzia emango diote irabazleari.
8. **Jabetza intelektual:** logotipo irabazlearen jabe bakarra Debegesa izango da eta erabiltzeko askatasun osoa izango du.
9. **Oinarrien onarpena:** lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea eta epaimahaiaren erabakia onartzea adierazten dute.

---

*(\*) Europako Gizarte Fondoak eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ekimen hau diruz laguntzen dute.*